

LEY FORAL 18/1986, DE 15 DE DICIEMBRE DEL VASCUENCE

(Texto unificado. Original publicado en BON 154 de 17 de diciembre de 1986. Modificaciones: Ley Foral 2/2010, de 23 de febrero.)

Preámbulo

Dentro del patrimonio cultural de las Comunidades, las Lenguas ocupan un lugar preeminente. Su carácter instrumental de vehículo de comunicación humana por excelencia, hace de ellas soporte fundamental de la vida social, elemento de identificación colectiva y factor de convivencia y entendimiento entre los miembros de las sociedades. Al mismo tiempo, las Lenguas son símbolo y testimonio de la historia propia, en la medida que recogen, conservan y transmiten a lo largo de las generaciones la experiencia colectiva de los pueblos que las emplean.

La condición dinámica del fenómeno lingüístico y la complejidad y variedad de los factores que en él intervienen, han dado lugar históricamente a continuas fluctuaciones en lo que a la implantación de las lenguas en las Comunidades se refiere: la expansión de unas y el retroceso de otras, forzados en ocasiones por motivos de orden extralingüístico, son sin duda las más significativas. En estos cambios han intervenido frecuentemente actitudes opuestas a las que fundamentan el hecho comunicativo, propiciadas por quienes atribuyen erróneamente a las lenguas, un poder disgregador o no alcanzan a ver la riqueza última que esconde la pluralidad de lenguas.

Aquellas Comunidades que, como Navarra, se honran en disponer en su patrimonio de más de una lengua, están obligadas a preservar ese tesoro y evitar su deterioro o su pérdida. Mas la protección de tal patrimonio no puede ni debe ejercerse desde la confrontación u oposición de las lenguas, sino como establece el artículo 3.3 de la Constitución, reconociendo en ellas un patrimonio cultural que debe ser objeto de especial respeto y protección.

Sobre estos principios se asienta esta Ley Foral que viene a dar cumplimiento al referido mandato constitucional y desarrollar las previsiones contenidas en el artículo 9 de la Ley Orgánica de Reintegración y Amejoramiento del Régimen Foral de Navarra.

TÍTULO PRELIMINAR. DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1

1. Esta Ley Foral tiene por objeto la regulación

18/1986 FORU LEGEA, abenduaren 15ekoa, euskarari buruzkoa

(Testu bateratua. Jatorrizkoa 1986ko 154. NAO n argitaratua, abenduaren 17an. Aldaketak: 2/2010 Foru Legea, otsailaren 23koa.)

Atarikoak

Erkidegoen ondare kulturalaren barruan, hizkuntzek toki nagusia dute. Hizkuntzak gizakiek komunikatzeko duten tresnarik onena eta bizitza sozialaren ezinbesteko euskarri dira, identifikazio kolektiborako osagai eta gizarteko kideen artean bizikidetzarako eta ulermenerako faktore. Aldi berean, hizkuntzak berezko historiaren ikur eta lekuko dira, belaunaldiz belaunaldi hizkuntza horiek erabiltzen diren herrietako esperientzia kolektiboa bildu, begiratu eta transmititzen duten heinean.

Hizkuntza fenomenoaren izaera dinamikoak eta bertan parte hartzen duten faktoreen konplexutasun eta aniztasunak historikoki etengabeko gorabeherak sortu dituzte hizkuntzak erkidegoetan ezartzeari dagokionez: batzuk hedatu egin dira eta beste batzuek atzera egin dute, inoiz hizkuntzaz kanpoko arrazoiek eraginik. Horiexek dira, ez bairik gabe, gorabeherarik adierazgarrienak. Aldaketa hauetan, maiz komunikazioaren oinarri diren kontrako jarrerak esku hartu dute, hizkuntzek banatu egiten dutela oker uste dutenek edo hizkuntzen pluraltasunak barne-barnean gordetzen duen aberastasuna ikusten ez dutenek bultzaturik.

Nafarroaren moduan, beren ondarean hizkuntza bat baino gehiago edukitzeaz harro diren erkidegoak beharturik daude altxor hori begiratu eta babestera eta haren hondatzea eta galera eragoztera. Baina ondare hori ezin da babestu eta ez da babestu behar ere hizkuntzen arteko borroka edo aurkaritzaren bidez. Aitzitik, Konstituzioaren 3.3 artikulua ezartzen duenari jarraikiz, hizkuntza horiek errespetu eta babes berezia behar duen kultura ondarea direla aitortu behar da.

Printzipio hauetan oinarritzen da foru lege hau, zeinak aipatutako konstituzio agindua bete eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 9. artikuluko aurreikuspenak garatzen dituen.

ATARIKO TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua

1. Foru lege honen xedea euskararen erabilera

del uso normal y oficial del vascuence en los ámbitos de la convivencia social, así como en la enseñanza.

2. Son objetivos esenciales de la misma:

a) Amparar el derecho de los ciudadanos a conocer y usar el vascuence y definir los instrumentos para hacerlo efectivo.

b) Proteger la recuperación y el desarrollo del vascuence en Navarra, señalando las medidas para el fomento de su uso.

c) Garantizar el uso y la enseñanza del vascuence con arreglo a principios de voluntariedad, gradualidad y respeto, de acuerdo con la realidad sociolingüística de Navarra.

3. Las variedades dialectales de el vascuence en Navarra serán objeto de especial respeto y protección.

Artículo 2

1. El castellano y el vascuence son lenguas propias de Navarra y, en consecuencia, todos los ciudadanos tienen derecho a conocerlas y a usarlas.

2. El castellano es la lengua oficial de Navarra. El vascuence lo es también en los términos previstos en el artículo 9 de la Ley Orgánica de Reintegración y Amejoramiento del Régimen Foral de Navarra, y en los de esta Ley Foral.

Artículo 3

1. Los poderes públicos adoptarán cuantas medidas sean necesarias para impedir la discriminación de los ciudadanos por razones de lengua.

2. Los poderes públicos respetarán la norma idiomática en todas las actuaciones que se deriven de lo dispuesto en esta Ley Foral y en las disposiciones que la desarrollen.

3. La institución consultiva oficial, a los efectos del establecimiento de las normas lingüísticas será la Real Academia de la Lengua Vasca, a la que los poderes públicos solicitarán cuantos informes o dictámenes consideren necesarios para dar cumplimiento a lo establecido en el apartado anterior.

Artículo 4

Los ciudadanos podrán dirigirse a los Jueces y Tribunales, de acuerdo con la legislación vigente, para ser amparados en los derechos lingüísticos

arrunta eta ofiziala arautzea da, gizarte bizikidetzaren eta irakaskuntzaren esparruetan.

2. Hauek dira lege honen ezinbesteko helburuak:

a) Herritarrek euskara jakin eta erabiltzeko duten eskubidea babestea eta hori betetzeko tresnak zehaztea.

b) Euskararen berreskurapena eta garapena begiratzea Nafarroan, euskararen erabilera sustatzeko neurriak adieraziz.

c) Euskararen erabilera eta irakaskuntza bermatzea, borondatezkotasun, mailakatze eta errespetu irizpideei jarraikiz, Nafarroako errealitate soziolingüistikoaren arabera.

3. Nafarroako euskalkiek errespetu eta babes berezia izanen dute.

2. artikulua

1. Gaztelania eta euskara Nafarroako berezko hizkuntzak dira eta, horren ondorioz, herritar guztiek dute hizkuntza horiek jakiteko eta erabiltzeko eskubidea.

2. Gaztelania da Nafarroako hizkuntza ofiziala. Euskara ere ofiziala da Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoko 9. artikuluan eta foru lege honetan aurrez ikusitako eran.

3. artikulua

1. Botere publikoek beharrezko diren neurriak hartuko dituzte hizkuntza dela-eta herritarrak diskriminaturik izan ez daitezen.

2. Botere publikoek hizkuntza araua errespetatuko dute, foru lege honetan eta hura garatzen duten xedapenetan ezarritakoaren ondorio diren jarduera guztietan.

3. Hizkuntza arauak ezartzeko, Euskaltzaindia izanen da erakunde aholku-emaile ofiziala, eta botere publikoek berari eskatuko dizkiote aurreko atalean ezarritakoa betetzeko beharrezko zaizkien txosten edo irizpenak.

4. artikulua

Indarreko legeriaren arabera, eta foru lege honetan ezartzen diren hizkuntza eskubideetan babestuak izateko, herritarrek epaile eta

que se establecen en esta Ley Foral.

Artículo 5

1. A los efectos de esta Ley Foral, Navarra tiene;

a) Una zona vascofona, integrada por los términos municipales de: Aburregaina/Aburrea Alta, Aburrepea/Aburrea Baja, Altsasu/Alsasua, Anue, Araitz, Arakil, Arantza, Arano, Arbizu, Areso, Aria, Arike, Arruazu, Auritz/Burguete, Bakaiku, Basaburua, Baztan, Bera, Bertizarana, Betelu, Donamaria, Doneztebe/Santesteban, Elgorriaga, Eratsun, Ergoiena, Erroibar/Valle de Erro, Esteribar, Etxalar, Etxarri-Aranatz, Ezkurra, Garaioa, Garralda, Goizueta, Hiriberri/Villanueva de Aezkoa, Igantzi, Imotz, Irañeta, Irurtzun, Ituren, Iturmendi, Labaien, Lakuntza, Lantz, Larraun, Lekunberri, Leitza, Lesaka, Lizaide/Valcarlos, Oitz, Olazti/Olazagutía, Orbaitzeta, Orbara, Orreaga/Roncesvalles, Saldias, Sunbilla, Uharte-Arakil, Ultzama, Urdazubi/Urdaiz, Urdiain, Urrotz, Zubieta, Ziordia y Zugarramurdi.

b) Una zona mixta integrada por los términos municipales de: Abárzuza, Ansoáin, Aoiz, Atez, Barañáin, Berrioplano, Berriozar, Bidaurreta, Burgui, Burlada, Cendea de Olza, Ciriza, Cizur, Echarri, Etxauri, Egüés, Ezcároz, Esparza de Salazar, Estella, Ezcabarte, Garde, Goñi, Güesa, Guesálaz, Huarte, Isaba, Iza, Izalzu, Jaurrieta, Juslapeña, Lezáun, Lizoáin/Arriasgoiti, Ochagavía, Odieta, Olaibar, Ollo, Orkoién, Oronz, Oroz-Betelu, Pamplona, Puente la Reina, Roncal, Salinas de Oro, Sarriés, Urzainqui, Uztárruz, Valle de Arce, Valle de Yerri, Vidángoz, Villava, Zabalza y Zizur Mayor.

Esta zona mixta podrá ser ampliada automáticamente a los municipios de Aranguren, Belascoáin, Galar y Noáin-Valle de Elorz siempre que así lo acuerden previamente, por mayoría absoluta, los plenos municipales de cada una de las citadas corporaciones locales, debiendo ser publicados cada uno de dichos acuerdos en el Boletín Oficial de Navarra para que tengan plena efectividad.

c) Una zona no vascofona, integrada por los restantes términos municipales.

2. La determinación realizada en el apartado anterior podrá ser objeto de revisión, con arreglo al procedimiento establecido en los artículos 9 y 20.2 de la Ley Orgánica de Reintegración y Amejoramiento del Régimen Foral de Navarra.

3. El Gobierno de Navarra ordenará periódicamente la elaboración de estudios de la realidad sociolingüística del vascuence de los que

auzitegiatarako jo dezakete.

5. artikulua

1. Foru lege honen ondorioetarako, Nafarroako ondoko eremu hauek ditu:

a) Eremu euskalduna, ondoko udalerriek osatua: Aburregaina/Aburrea Alta, Aburrepea/Aburrea Baja, Altsasu/Alsasua, Anue, Araitz, Arakil, Arantza, Arano, Arbizu, Areso, Aria, Arike, Arruazu, Auritz/Burguete, Bakaiku, Basaburua, Baztan, Bera, Bertizarana, Betelu, Donamaria, Doneztebe/Santesteban, Elgorriaga, Eratsun, Ergoiena, Erroibar/Valle de Erro, Esteribar, Etxalar, Etxarri-Aranatz, Ezkurra, Garaioa, Garralda, Goizueta, Hiriberri/Villanueva de Aezkoa, Igantzi, Imotz, Irañeta, Irurtzun, Ituren, Iturmendi, Labaien, Lakuntza, Lantz, Larraun, Lekunberri, Leitza, Lesaka, Lizaide/Valcarlos, Oitz, Olazti/Olazagutía, Orbaitzeta, Orbara, Orreaga/Roncesvalles, Saldias, Sunbilla, Uharte-Arakil, Ultzama, Urdazubi/Urdaiz, Urdiain, Urrotz, Zubieta, Ziordia eta Zugarramurdi.

b) Eremu mistoa, ondoko udalerriek osatua: Abartzuza, Agoitz, Antsoain, Artzibar, Atarrabia, Atez, Barañáin, Berriobeiti, Berriozar, Bidankoze, Bidaurreta, Burgi, Burlata, Deierri, Eguesibar, Erronkari, Espartza Zaraitzu, Etxarri, Etxauri, Ezcabarte, Ezkaroze, Garde, Gares, Gesalatz, Goñerri, Gorza, Iruña, Itza, Itzaltzu, Izaba, Jaitz, Jaurrieta, Lezaun, Lizarra, Lizoain-Arriasgoiti, Odieta, Olaibar, Ollaran, Oltza Zendea, Orkoién, Orontze, Orotz-Betelu, Otsagabia, Sartze, Txulapain, Uharte, Urzainki, Uztarroze, Zabaltza, Ziritza, Zizur eta Zizur Nagusia.

Eremu misto hori automatikoki hedatu ahalko da Aranguren, Belaskoain, Galarko eta Noain-Elortzibarko udaletara, baldin eta toki korporazio horietako bakoitzeko Osoko Bilkurak gehiengo oso hartzen badu erabakia. Erabakiak eragingarritasun osoa izan dezan, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da.

c) Eremu ez-euskalduna, gainerako udalerriek osatua.

2. Aurreko atalean zehaztutakoa berriki daiteke, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 9. eta 20.2 artikuluetan ezarritako prozedurari jarraikiz.

3. Nafarroako Gobernuak aldian-aldian euskararen errealitate soziolingüistikoari buruzko azterlanak egiteko aginduko du, eta horien berri

dará cuenta al Parlamento.

TÍTULO I. DEL USO NORMAL Y OFICIAL

CAPÍTULO I. Disposiciones generales

Artículo 6

Se reconoce a todos los ciudadanos el derecho a usar tanto el vascuence como el castellano en sus relaciones con las Administraciones Públicas, en los términos establecidos en los capítulos siguientes.

Artículo 7

El "Boletín Oficial de Navarra" y el "Boletín Oficial del Parlamento de Navarra" se publicarán en castellano y en vascuence, en ediciones separadas y simultáneas.

Artículo 8

1. Los topónimos de la Comunidad Foral, tendrán denominación oficial en castellano y en vascuence, de conformidad con las siguientes normas:

a) En la zona vascófona, la denominación oficial será en vascuence, salvo que exista denominación distinta en castellano, en cuyo caso se utilizarán ambas.

b) En las zonas mixta y no vascófona, la denominación oficial será la actualmente existente, salvo que, para las expresadas en castellano, exista una denominación distinta, originaria y tradicional en vascuence, en cuyo caso se utilizarán ambas.

2. El Gobierno de Navarra, previo informe de la Real Academia de la Lengua Vasca, determinará, de conformidad con lo previsto en el apartado primero de este artículo, los topónimos de la Comunidad Foral, así como los nombres oficiales de los territorios, los núcleos de población y las vías interurbanas, y deberá dar cuenta de ello al Parlamento. El nombre de las vías urbanas será fijado por el Ayuntamiento correspondiente.

3. Las denominaciones adoptadas por el Gobierno, a tenor de lo dispuesto en los apartados anteriores, serán las legales, a todos los efectos, dentro del territorio de Navarra y la rotulación deberá ser acorde con ellas. El Gobierno de Navarra reglamentará la normalización de la rotulación pública, respetando, en todos los casos, las normas internacionales que el Estado haya asumido.

emanen dio Parlamentuari.

I. TITULUA. ERABILERA ARRUNTA ETA OFIZIALA

I. KAPITULUA. Xedapen orokorrak

6. artikulua

Aitortu egiten da herritar guztiek administrazio publikoekiko harremanetan euskara nahiz gaztelania erabiltzeko eskubidea dutela, ondoko kapituluetan ezarritako eran.

7. artikulua

"Nafarroako Aldizkari Ofiziala" eta "Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala" gaztelaniaz eta euskaraz argitaratuko dira, aldibereko edizio bananduetan.

8. artikulua

1. Foru Komunitateko toponimoek gaztelaniaz eta euskaraz izanen dute izendapen ofiziala, honako arau hauen arabera:

a) Eremu euskaldunean, izendapen ofiziala euskarazkoa izanen da, non ez den beste izen bat gaztelaniaz; hala bada, biak erabiliko dira.

b) Eremu mistoan eta eremu ez-euskaldunean, izendapen ofiziala gaur egungoa izanen da. Hala ere, gaztelaniaz adierazitakoek euskarazko izendapen desberdin, jatorrizko eta tradizionala baldin badute, biak erabiliko dira.

2. Nafarroako Gobernuak, Euskaltzaindiaren alde aurreko txostena kontuan izanik eta artikulua honen lehendabiziko atalean aurrez ikusitakoaren arabera, Foru Komunitateko toponimoak eta lurralde, herri eta herriarteko bideen izen ofizialak erabakiko ditu eta, orobat, horren berri eman beharko dio Parlamentuari. Herri barruko bideen izena jartzea udal bakoitzari dagokio.

3. Gobernuak erabakitako izenak, aurreko ataletan xedatutakoaren arabera, legezkoak izanen dira ondorio guztietarako Nafarroa osoan, eta errotulazioa haiekin bat etorriko da. Nafarroako Gobernuak errotulazio publikoaren normalizazioa arautuko du, betiere Estatuak bere egin dituen nazioarteko arauak errespetatuz.

Artículo 9

El Gobierno de Navarra establecerá en Pamplona una unidad administrativa de traducción oficial vascuence-castellano.

CAPÍTULO II. Del uso oficial en la zona vascófona

Artículo 10

1. Todos los ciudadanos tienen derecho a usar tanto el vascuence como el castellano en sus relaciones con las Administraciones Públicas y a ser atendidos en la lengua oficial que elijan.

A tal efecto, se adoptarán las medidas oportunas y se arbitrarán los medios necesarios para garantizar de forma progresiva el ejercicio de este derecho.

2. En los expedientes o procedimientos en los que intervenga más de una persona, los poderes públicos utilizarán la lengua que establezcan de mutuo acuerdo las partes que concurran.

Artículo 11

Serán válidas y tendrán plena eficacia jurídica todas las actuaciones administrativas cualquiera que sea la lengua oficial empleada. En consecuencia, todos los actos en que intervengan órganos de las Administraciones Públicas, así como las notificaciones y comunicaciones administrativas, deberán ser redactadas en ambas lenguas, salvo que todos los interesados elijan expresamente la utilización de una sola.

Artículo 12

Los documentos públicos deberán redactarse en la lengua oficial que el otorgante elija o, si hubiese más de un otorgante, en la que éstos acuerden.

Los fedatarios públicos deberán expedir en castellano o vascuence, según lo solicite el interesado, las copias o los testimonios y traducir cuando sea necesario matrices y documentos bajo su responsabilidad.

En todo caso, deberán expedir en castellano las copias que deban tener efecto fuera de la zona vascófona.

Artículo 13

1. En los Registros Públicos, los asientos se extenderán en la lengua oficial en que esté redactado el documento y, en todo caso, también en castellano.

9. artikulua

Nafarroako Gobernuak Iruñean euskara-gaztelania itzulpen ofizialeko administrazio unitatea sortuko du.

II. KAPITULUA. Erabilera ofiziala eremu euskaldunean

10. artikulua

1. Herritar guztiek, Administrazio Publikoekiko harremanetan, euskara nahiz gaztelania erabiltzeko eta berek hautatutako hizkuntza ofizialean harrera izateko eskubidea dute.

Horretarako, neurri egokiak hartuko dira eta beharrezko gerta daitezkeen bitartekoak erabakiko, progresiboki eskubide honen erabilera bermatzeko.

2. Pertsona batek baino gehiagok parte hartzen duten espediente edo prozeduretan, biltzen diren aldeek elkarrekin adostutako hizkuntza erabiliko dute botere publikoek.

11. artikulua

Erabilitako hizkuntza edozein izanik ere, administrazio jarduera guztiak baliozkoak izanen dira eta legezko eraginkortasun osoa izanen dute. Horren ondorioz, Administrazio Publikoen organoek parte hartzen duten ekintza guztiak, baita administrazio jakinarazpen eta komunikazioak ere, bi hizkuntzetan idatzi beharko dira, interesdun guztiek espresuki bakar bat erabiltzea aukeratzen badute izan ezik.

12. artikulua

Agiri publikoak, emaileak aukeratutako hizkuntza ofizialean idatzi beharko dira edo, emaile bat baino gehiago balitz, hauek adostutakoan.

Fede-emaile publikoek, interesdunak eskatutakoaren arabera, gaztelaniaz edo euskaraz luzatu beharko dituzte kopiak edo lekukotasunak, eta behar denean, matrize eta agiriak beren erantzukizunpean itzuli beharko dituzte.

Nolanahi ere, gaztelaniaz luzatu beharko dituzte eremu euskaldunetik at indarra izan behar duten kopiak.

13. artikulua

1. Erregistro Publikoetan, idazpenak dokumentua dagoen hizkuntza ofizialean luzatuko dira eta, betiere, gaztelaniaz ere bai.

2. La expedición de copias y certificaciones se realizará en cualquiera de las lenguas oficiales.

Artículo 14

En sus relaciones con la Administración de Justicia, todo ciudadano podrá utilizar la lengua oficial de su elección, de conformidad con lo dispuesto en la legislación vigente.

Artículo 15

1. Las Administraciones Públicas y las empresas de carácter público promoverán la progresiva capacitación en el uso del vascuence del personal que preste servicio en la zona vascófona.

2. En el ámbito de sus respectivas competencias, cada Administración especificará las plazas para las que sea preceptivo el conocimiento del vascuence y para las demás se considerará como mérito cualificado entre otros.

Artículo 16

Las Entidades Locales de la zona vascófona utilizarán el castellano y el vascuence en todas sus disposiciones, publicaciones, rotulaciones de vías urbanas y nombres propios de sus lugares, respetando, en todo caso, las tradicionales.

CAPÍTULO III. Del uso en la zona mixta

Artículo 17

Todos los ciudadanos tienen derecho a usar tanto el vascuence como el castellano para dirigirse a las Administraciones Públicas de Navarra

Para garantizar el ejercicio de este derecho, dichas Administraciones podrán:

a) Especificar en la oferta pública de empleo de cada año, las plazas para acceder a las cuales sea preceptivo el conocimiento del vascuence.

b) Valorar como mérito el conocimiento del vascuence en las convocatorias para el acceso a las demás plazas.

CAPÍTULO IV. Del uso en la zona no vascófona

Artículo 18

Se reconoce a los ciudadanos el derecho a dirigirse en vascuence a las Administraciones Públicas de Navarra. Estas podrán requerir a los interesados la traducción al castellano o utilizar los servicios de traducción previstos en el artículo 9.

2. Kopia eta ziurtagiriak hizkuntza ofizialetarik edozeinetan luzatuko dira.

14. artikulua

Justizia Administrazioarekiko harremanetan, herritar guztiek berek hautatutako hizkuntza ofiziala erabiltzen ahalko dute, indarreko legerian xedatutakoaren arabera.

15. artikulua

1. Administrazio Publikoek eta izaera publikoko enpresek gaikuntza progresiboa sustatuko dute, eremu euskaldunean zerbitzua ematen duten langileak progresiboki euskararen erabileran gaitu daitezen.

2. Administrazio bakoitzak, berari dagozkion eskumenen esparruan, zehaztuko du zein lanpostutarako izanen den nahitaezkoa euskaraz jakitea, eta gainerakoentzat, merezimendu kualifikatuztat hartuko da besteren artean.

16. artikulua

Eremu euskalduneko toki entitateek gaztelania eta euskara erabiliko dute beren xedapen, argitalpen, herriko bideetako kaleen errotulu eta tokien izen berezietan eta, betiere, izen tradizionalak errespetatuko dituzte.

III. KAPITULUA. Erabilera eremu mistoan

17. artikulua

Herritar guztiek euskara nahiz gaztelania erabiltzeko eskubidea dute Nafarroako Administrazio Publikoei zuzentzeko.

Eskubide honen erabilera bermatzeko, aipatutako administrazioek honako hau egin dezakete:

a) Urteroko lanpostuen eskaintza publikoan zehaztea zein lanpostutarako izanen den nahitaezkoa euskaraz jakitea.

b) Gainerako lanpostuetara iristeko deialdietan euskara jakitea merezimendu moduan baloratzea.

IV. KAPITULUA. Erabilera eremu ez-euskaldunean

18. artikulua

Nafarroako Administrazio Publikoetara euskaraz zuzentzeko eskubidea aitortzen zaie herritarrei. Administrazio horiek interesdunei gaztelaniara itzultzeko eska diezaiekete edo 9. artikuluan aurrez ikusitako itzulpen zerbitzuak erabili.

TÍTULO II. DE LA ENSEÑANZA

CAPÍTULO I. Disposiciones generales

Artículo 19

Todos los ciudadanos tienen derecho a recibir la enseñanza en vascuence y en castellano en los diversos niveles educativos, en los términos establecidos en los capítulos siguientes.

Artículo 20

El Gobierno de Navarra regulará la incorporación del vascuence a los planes de enseñanza y determinará los modos de aplicación a cada centro, en el marco de lo dispuesto por esta Ley Foral para las distintas zonas.

Artículo 21

El Gobierno de Navarra llevará a cabo, en el ámbito de sus competencias, las acciones necesarias para que los planes de estudio de los centros superiores de formación del profesorado garanticen la adecuada capacitación del profesorado, necesario para la enseñanza vascuence.

Artículo 22

Las Administraciones Públicas proporcionarán los medios personales, técnicos y materiales precisos para hacer efectivo lo dispuesto en los artículos anteriores.

Artículo 23

Los planes oficiales de estudio considerarán el vascuence como patrimonio cultural de Navarra y se adaptarán a los objetivos de esta Ley Foral.

CAPÍTULO II. De la enseñanza en la zona vascófona

Artículo 24

1. Todos los alumnos recibirán la enseñanza en la lengua oficial que elija la persona que tenga atribuida la patria potestad o tutela o, en su caso, el propio alumno.

2. En los niveles educativos no universitarios será obligatoria la enseñanza del vascuence y del castellano, de tal modo que los alumnos, al final de su escolarización básica, acrediten un nivel suficiente de capacitación en ambas lenguas.

3. Los alumnos que hayan iniciado sus estudios de Educación General Básica fuera de la zona vascófona o aquellos que justifiquen debidamente su residencia no habitual en la misma, podrán ser

II. TITULUA. IRAKASKUNTZA

I. KAPITULUA. Xedapen orokorrak

19. artikulua

Herritar guztiek dute hezkuntza maila desberdinetan irakaskuntza euskaraz eta gaztelaniaz izateko eskubidea, ondoko kapituluetan ezarritako eran.

20. artikulua

Nafarroako Gobernuak arautuko du euskara nola sartuko den irakaskuntza planetan eta zehaztuko du ikastetxe bakoitzean nola aplikatuko den, lege honek eremu desberdinetarako xedatutakoaren esparruan.

21. artikulua

Nafarroako Gobernuak, bere eskumenen esparruan, behar diren ekintzak aurrera eramanez ditu, irakasleen prestakuntzarako goi mailako ikastetxeetako ikasketa planek euskarazko irakaskuntzarako beharrezkoak diren irakasleen gaikuntza egokia berma dezaten.

22. artikulua

Administrazio Publikoek beharrezkoak diren baliabide pertsonalak, teknikoak eta materialak paratuko dituzte, aurreko artikuluetan xedatutakoa betetzeko.

23. artikulua

Ikasketa plan ofizialek euskara Nafarroako kultura ondareztat hartuko dute eta foru lege honen xedeei egokituko zaizkie.

II. KAPITULUA. Irakaskuntza eremu euskaldunean

24. artikulua

1. Ikasle guztiek irakaskuntza hartuko dute, guraso-boterea edo tutoretza daukan pertsonak, edo hala badagokio, ikasleak berak aukeratutako hizkuntza ofizialean.

2. Hezkuntza maila ez-unibertsitarioetan euskara eta gaztelania nahitaez irakatsiko dira, ikasle guztiek oinarrizko eskolatzearen bukaeran bi hizkuntzetan gaitasun maila nahikoa egiaztatu ahal izan dezaten.

3. Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko ikasketak eremu euskaldunetik at hasi dituzten ikasleak edo eremu honetan ohikoa ez den bizilekua dutela behar bezala justifikatzen dutenak,

eximidos de la enseñanza del vascuence.

CAPÍTULO III. De la enseñanza en la zona mixta

Artículo 25

1. La incorporación del vascuence a la enseñanza, se llevará a cabo de forma gradual, progresiva y suficiente, mediante la creación, en los centros, de líneas donde se imparta enseñanza en vascuence para los que lo soliciten.

2. En los niveles educativos no universitarios se impartirán enseñanzas de vascuence a los alumnos que lo deseen, de tal modo que al final de su escolarización puedan obtener un nivel suficiente de conocimiento de dicha lengua.

CAPÍTULO IV. De la enseñanza en la zona no vascófona

Artículo 26

La enseñanza del vascuence será apoyada y, en su caso, financiada total o parcialmente por los poderes públicos con criterios de promoción y fomento del mismo, de acuerdo con la demanda.

TÍTULO III. DE LOS MEDIOS DE COMUNICACIÓN SOCIAL

Artículo 27

1. Las Administraciones Públicas promoverán la progresiva presencia del vascuence en los medios de comunicación social públicos y privados.

A tal fin, el Gobierno de Navarra elaborará planes de apoyo económico y material para que los medios de comunicación empleen el vascuence de forma habitual y progresiva.

2. En las emisoras de televisión y radio, y en los demás medios de comunicación gestionados por la Comunidad Foral, el Gobierno de Navarra velará por la adecuada presencia del vascuence.

Artículo 28

Las Administraciones Públicas de Navarra protegerán las manifestaciones culturales y artísticas, la edición de libros, la producción audiovisual y cualesquiera otras actividades que se realicen en vascuence

Disposición Adicional Única

El Gobierno de Navarra, a través del Servicio de Cultura, Institución Príncipe de Viana, llevará a cabo las actuaciones precisas para dar cumplimiento a lo establecido en el artículo 1.3,

euskara ikastetik salbuetsiak izan daitezke.

III. KAPITULUA. Irakaskuntza eremu mistoan

25. artikulua

1. Euskara irakaskuntzan sartuko da pixkana-pixkanaka, progresiboki eta behar adina, ikastetxeetan euskarazko irakaskuntza duten lerroak sortuz, hala eskatzen dutenendako.

2. Hezkuntza maila ez-unibertsitarioetan euskara ikasketak emanen zaizkie hala nahi duten ikasleei, oinarritzko eskolatzearen bukaeran euskararen jakintza nahikoa izan dezaten.

IV. KAPITULUA. Irakaskuntza eremu ez-euskaldunean

26. artikulua

Botere publikoek euskararen irakaskuntza lagunduko dute, eta behar denean, osoki edo zati batean finantzatuko dute, sustapen eta promozio irizpideei jarraikiz eta eskariaren arabera.

III. TITULUA. KOMUNIKABIDE SOZIALAK

27. artikulua

1. Administrazio Publikoek komunikabide sozial publiko eta pribatuetan euskarak gero eta presentzia handiagoa izan dezan sustatuko dute.

Horretarako, Nafarroako Gobernuak diruz eta materialez laguntzeko planak gauzatuko ditu, komunikabideek euskara progresiboki eta ohiko moduan erabil dezaten.

2. Foru Komunitateak kudeatzen dituen telebista eta irrati emisora eta gainerako komunikabideetan, Nafarroako Gobernuak euskararen presentzia egokia begiratuko du.

28. artikulua

Nafarroako Administrazio Publikoek babestu egingen dituzte euskaraz egiten diren agerkari kultural eta artistikoak, liburu argitalpenak, ikus-entzunezko ekoizpena eta bestelako edozein jarduerak.

Xedapen Gehigarri Bakarra

Nafarroako Gobernuak, "Vianako Printzea Erakundea" Kultura Zerbitzuaren bidez, Foru Lege honen 1.3 artikuluan ezarritakoa bete dadin, behar diren jarduerak aurrera eramanez

de esta Ley Foral .

Disposición Transitoria Única

En el plazo de tres meses, el Gobierno de Navarra creará la unidad administrativa de traducción oficial vascoence-castellano a que se refiere el artículo 9 .

Disposición Final Primera

Se faculta al Gobierno de Navarra para dictar cuantas disposiciones sean precisas para el desarrollo y la aplicación de esta Ley Foral.

Disposición Final Segunda

Esta Ley Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el "Boletín Oficial de Navarra".

ditu.

Xedapen Iragankor Bakarra

Hiru hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak 9. artikuluan aipatutako euskara-gaztelania itzulpen ofizialeko administrazio unitatea sortuko du.

Azken Xedapenetan Lehena

Ahalmena ematen zaio Nafarroako Gobernuari foru lege hau garatu eta aplikatzeko beharrezko diren xedapenak emateko.

Azken Xedapenetan Bigarrena

Foru lege honek indarra hartuko du "Nafarroako Aldizkari Ofizialean" argitaratu eta biharamunean.